

IL AZALPEN PROBA • <i>Ostegunak</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**lanean egin duzunari jarraiki**–: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 300 bat hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

Min2:00

Etxeko guztiak lo daude jadanik. Esteban eta Xabier dena ondo dakitelako eta Jokin, ezer ez dakienez, aurkeztuko ez delako.

Azterketan lagunen alboan jezarri eta kopiatu ahal banie...

Baina diotenez, ikasgai hau ez da aproposena horretarako, ze galdera gutxi baina oso luzeak ipintzen ditu irakasle kabroi horrek.

Igual arriskatuko naiz eta gauza inportanteenak bakarrik ikasiko ditut.

Bai, horixe egingo dut; ea loteria tokatzen zaidan. Aupa, Ramón.

“Fundamentos del orden constitucional: la Constitución va a recoger los principios, normas y decisiones que van a definir el modelo político concreto elegido por el poder constituyente. Sus preceptos se van a adecuar...”

Tiki-taka, tiki-taka, tiki-taka.

IL AZALPEN PROBA • <i>Ostegunak</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nor*ik* idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**lanean egin duzunari jarraiki**–: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 300 bat hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

Zoritxarreko istripu haren ondorioz, etxeko giroa asko aldatu zen. Batetik, Txabiren aldaketa zegoen, eta bestetik Federena ere bai, gertaera haren ondorioz ganorabakoa izateari utzi eta txirrindulari bizimodu osasuntsuari betebete ematea erabaki baitzuen.

Jauregiko beste biztanleak, Koldo, Dani eta Ibanek, egoera hura iragankorra izango zela pentsatu zuten eta Federen parrandazaletasuna eta Txabiren lidergoa berreskuratu bitartean lemazain berriak eurek izan beharko zutela konturatu ziren.

Inauteri ostean, neguko azken asteak gogorrak izan ziren hiru lagun haientzat. Etxeko giroa guztiz aldatuta zegoen eta, euren ahaleginak gora-behera, lehengo alaitasunaren ordeztasuna zen nagusi.

Ezin zen hala iraun. Zerbait egin beharra zegoen giroa lehengora bueltatzeko. Luzaroan pentsatu zuten eta azkenean ideia bat izan zuten: Udaberriko Jaia egingo zuten etxeko lorategian. Euskal Herriko alderdi guztietako edariak ekarriko zituzten –Bizkaiko txakolina, Gipuzkoako sagardoa, Arabar Errioxako ardo beltza, Nafarroako ardo gorria eta Iparraldeko arno zuri gozoa– eta dozenaka estudiante lagun gonbidatuko zituzten.